

Gizarte inklusiboaren alde Gizarte-babesaren defentsan

Azken urteetan, Euskadiko hainbat sistema publikotan aurrerapenak izan ditugu eta mugak eta gabeziak izan dituzten arren, biztanleriaren ongizatea bultzatzea izan dute xede, oro har, eta bereziki gizarte-bazterkeriako egoeran daudenena. Gizarte-zerbitzuen garapenarekin, hezkuntzarekin, osasunarekin, gutxieneko errenten bermearekin, gizarteratzearekin edo enpleguarekin lotutako sistemak dira eta bizi-kalitatearen hobekuntza bermatzea eta herritarren eskubideak erabat bete daitezen bultzatzea bilatzen dute.

Egungo krisi ekonomikoaren egoeran, desberdintasunak, pobrezia eta gizarte-bazterkeria areagotzen ari direla ikus dezakegu. Egoera horren aurrean, aipatutako sistemak mantentzeko konpromiso instituzionalak beharrezkoen direnean, arretaz ikusten dugu nola ari diren oinarrizko eskubide sozialak mugatzen dituzten neurriak bultzatzen eta gizarte-politiken eta horietarako aurrekontu publikoen pixkanakako murrizketa egiten. Horri guztiari babes-sistemaren iraunkortasuna zalantzan jartzen duten eta biztanleriaren zati batean elkartasunik gabeko jarrerak eta jokaerak bultzatzen dituzten arduradun politikoen adierazpenak gehitu behar zaizkio.

Egoera horren aurrean, gure komunitatean pobrezia larriagotzeari buruz arreta eman, gertatzen ari den gizarte-babesari dagokion atzerakada larriari buruz ohartarazi eta herritar guztien gizarte-ongizatea bermatuko duten sistema publikoen defentsa eta hobekuntzarekiko gure konpromiso sendoa adierazi nahi dugu aldarrikapen honekin, bertan sinatu dugunok.

Gurea bezalako gizartearen bizi-kalitate ezin hobea ezin existitu daiteke gizarte-ongizatea bermatu gabe eta pertsona guztien eskubideak errespetatu gabe, bereziki, gizarte-bazterkeriako egoerak sufritzen dituztenenak errespetatu gabe. Hori dela eta, herritarren eskubideak bermatuko dituzten diru-sarreraren bermerako errenta-sistemak, gizarteratzeko sistemak, gizarte-zerbitzuak eta enplegu-zerbitzuak defendatzen ditugu, horiek guztiak erantzukizun publikoan oinarrituta eta gizarte-eragile guztien esku-hartzearekin, bereziki, antolatutako gizarte-ekimenarekin.

Illo horretatik, gizarteak berak gizarte inklusiboagorantz aurrera egiteko bere gain hartu dituen ezinbesteko tresnak dira irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeak, elkartasunezko eta erantzukidetasunezko irizpideetatik abiatuta eta, beraz, horien partaidetza aktiboa eskatzen dugu gizarte-babeseko sistemen sorkuntzan eta garapenean.

Azkenik, erakunde publikoei, gizarte-erakundeei eta herritarrei dei egiten diegu elkarrekin lan egitera, bidezkoagoa eta inklusiboagoa izango den gizartea eraikitzeko, pertsona guztien giza eskubideen, eskubide sozialen eta eskubide ekonomikoen defentsatik hasita eta, bereziki, gizarte-bazterkeriako eta pobrezia-egoeran daudenenetatik hasita.

Aldarrikapena sinatu dugun pertsonak eta erakundeek eginkizun horrekiko konpromisoa hartu dugu, baita deia euskal herritar guztiei zabaltzekoa ere.

Eman zure izena www.ekainsarea.net webgunean

MANIFIESTO

Por una sociedad inclusiva En defensa de la protección social

En los últimos años, hemos asistido en Euskadi a un avance en una serie de sistemas públicos que, aun con limitaciones e insuficiencias, han tenido por objeto promover el bienestar de la población en general y, particularmente, de quienes se encuentran en situación de exclusión social. Son los sistemas relacionados con el desarrollo de los servicios sociales, la educación, la sanidad, la garantía de rentas mínimas, la inclusión social o el empleo, que pretenden garantizar una mejora de la calidad de vida y promover el pleno ejercicio de los derechos de la ciudadanía.

En la actual coyuntura de crisis económica, asistimos a un aumento de las desigualdades, la pobreza y la exclusión social. Y frente a esta situación, cuando más necesarios son los compromisos institucionales para el mantenimiento de los sistemas mencionados, observamos con preocupación cómo se están impulsando diferentes medidas que limitan el ejercicio de derechos sociales básicos, así como un progresivo recorte de las diferentes políticas sociales y de sus presupuestos públicos. A esto hay que añadir las declaraciones de responsables políticos que cuestionan el sostenimiento del sistema de protección y refuerzan actitudes y comportamientos insolidarios en una parte de la población.

Ante esta situación y con este manifiesto, las personas y organizaciones firmantes, queremos llamar la atención sobre el agravamiento de la pobreza en nuestra comunidad, alertar sobre el grave retroceso en materia de protección social que se está produciendo, así como mostrar nuestro firme compromiso con la defensa y la mejora de los sistemas públicos que garanticen el bienestar social de toda la ciudadanía.

Una calidad de vida óptima de una sociedad como la nuestra no puede existir si no se garantiza el bienestar social y el respeto de los derechos de todas las personas y, particularmente, de quienes sufren situaciones de exclusión social. Es por ello que defendemos unos sistemas de rentas de garantía de ingresos, de inclusión social, de servicios sociales y de empleo, que garanticen los derechos de la ciudadanía, sustentados en la responsabilidad pública y con el concurso de todos los actores sociales, especialmente con la iniciativa social organizada.

En ese sentido, las organizaciones sociales no lucrativas son herramientas imprescindibles de las que la propia ciudadanía se ha dotado para avanzar hacia una sociedad más inclusiva, desde criterios de solidaridad y corresponsabilidad, por lo que demandamos su participación activa en la construcción y desarrollo de los sistemas de protección social.

Finalmente, hacemos un emplazamiento a instituciones públicas, organizaciones sociales y a la ciudadanía misma, a trabajar conjuntamente para construir una sociedad más justa e inclusiva, desde la defensa de los derechos humanos, sociales y económicos de todas las personas, especialmente de aquellas que se encuentran en situación de exclusión social y pobreza.

Las personas y organizaciones firmantes de este manifiesto nos comprometemos con esta tarea, así como a trasladar este llamamiento al conjunto de la ciudadanía vasca.

Puedes adherirte en la página web: www.ekainsarea.net